



Amaia Gonzalez Caballero herriko dantzariak, bi sari eskuratu ditu Europako Areto Dantza Txapelketan

Otsailaren 28tik martxoaren 5a bitartean, Torremolinos herrian, Malagan ospatu zen Europako Areto Dantza Txapelketa. Herriko dantzariak bi sari eskuratu ditu. /5. ORRIALDEA

Emakumearen alde

Lasarte-Oriako emakumeek martxoaren 8a ospatu zuten hainbat ekintza antolatuz

Emakumearen Nazioarteko Eguna zen asteartean. Egun hori gogoratzeko Lasarte-Oriako Zentro Zibikoak hainbat ekimen antolatu ditu, birziklapen tailerra, *Siete mesas de billar francés* filmaren emanaldia eta emakume langileari buruzko hitzaldia. Baina ez dira ospakizun guztiak, gaur *La Ratonera* antzerkia eta emakumeentzako afaria egingo dira. /4. ORRIALDEA

Inguruko basoak berritzen

Lasarte-Oriako Zuhaitzaren eguna ospatu du gure inguruko basoak berrituz. Ekimen hau bi egunetan banatu eta guztira, 150 bat zuhaixka landatu dituzte.

Herriko ikastetxeetako 4. mailako ehun bat haur izan ziren asteazkenean Buruntza azpiko mendiko magalean. Herriko lorazainen aholkuak jarraituz ederki landatu zituzten lizarrak, haritzak eta urkiak.

Atzo, aldiz, Helduen Hezkuntza eskolako, euskaltegiko eta jubilatuetako lagunen txanda izan zen. •



Landaberri ikastolako eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeoko gaztetxeoek 75 zuhaixka landatu zituzten.

POLITIKA /3

Somoto auzia hizpide atzoko udalbatzarrean

KIROLA /6

Intzako pilotariak Udaberri txapelketako finalerdietan daude

AISIA /8

Aste Santuko Txokotan izena emateko epea zabalik dago

ADURIZ DE LASARTE S.A

Solomoa baratxuritan

Odolkia- Solomo ontzutua

Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra

Etxeko txorizoa

Basurde burua

Baserri pateca



BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Lasarte-Oria

Bideo Lagunak



Inguruko erakusketarik onena!

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

Neure kabuz



Politika

Politikaz hitz egin nahiko nuke gaurkoan. Ez dut, hala ere, azken hilabeteko egoeraren azterketa bat egin nahi, krisi ekonomiko larri batetan murgildurik gaudela azaldu edota Afrika iparraldea iraultzen ari dela errepikatu. Politikaren beste ikuspegi bat, beste perspektiba bat baita gaurkoan jorratu nahi dudana. Herri-koia goa. Gertuagokoa.

Azken asteotan hainbat berri irakurri ostean, aspaldidanik nire buruan bueltaka dabilTZan zalantza batzuk datorzikitzit esku arteko bolalumarara. Gure politikarien inguruko zalantzak dira hauek, hauen sinesgarritasunaren eta zuritasunaren ingurukoak. Egia ote, gizakia oso dela gizakia-arentzat, interes eza eta anaiartekotasuna utopia bat direla?

Bozkatzeak -gu zulo beltz batetik erremedio magikoren baten bidez salbatuko gaituen norbaiten alde bada, behinik behin- zentzu osoa galdurik duela deritzot. Gaur egun mahai gainean ditugun giza baloreen araberrako politikak eta politikariek, hein batean behintzat, guretzat hasierahasieratik ez dute interesik ezta sinesgarritasunik ere; gure kontzientziak kontrakoa sines-tarazi nahi izaten badigu ere, gure nahi, desira eta diruarekin nahi dutena egiteko zilegitasuna duen elite klase baten gisara ulertzen ditugu.

Demokraziaren joko hau onartu, eta honen arauak errespetatzen zergatik jarraitzen dugun inkoznita bat da niretzat. Erosotasuna aipatu izan da. Errazegia da azalpen hau, hala ere, ene ustez. Politika eta politikariekiko fede itsurik mantendu ezin dugula esanez soilik amaitu nahiko nuke. Eta ez inoren izenik aipatuz. Guztioi baitakizue nor eta zertaz mintzatu berri naizen.

Taxio Arrizabalaga

Zorion-agurrak



Oier

Zorionak politita! Eta 2 muxu potolo aitona amona eta familien partetik.



Julian

Zorionak familieren partetik! Ondo pasa!



Naia

Zorionak etxeko erreginari! Muxu pila-pila patata tortila. Asko maite zaitugu, amabxo eta aitaxo.



Oihane

Zorionak zure 1. urtebetetzean!! Muxu handi bat guraso eta famili osoaren partetik.



Aimar

Zorionak zure 2. urtebetetzean. Guraso, izeba-osaba eta aitona amonaren partetik.



Eneko

Zorionak "bitxito de Añorga"! Muxuak eta besarkadak amona, osaba izeba eta lehengusuak.




Eneko

Zorionak "bitxito"! Bederatzi muxu handi amaren partetik.



Naia, Noa eta Nara

Zorionak hiru potxolei. Familieren partetik. Uapasss!



Iugatz

Zorionak potoli zure 2. urtebetetzean. Muxu pila-pila aitaxo, amabxo eta familieren partetik.

Hiribusaren ordutegia

Lanegunetan

Lasarte-Oria				Lasarte-Oria			
Antxistu	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras	Antxistu	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras
7:45	7:55	8:00	8:05	14:15	14:25	14:30	14:35
8:15	8:25	8:30	8:35	14:45	14:55	15:00	15:05
8:45	8:55	9:00	9:05	15:15	15:25	15:30	15:35
9:15	9:25	9:30	9:35				
9:45	9:55	10:00	10:05	16:15	16:25	16:30	16:35
10:15	10:25	10:30	10:35	16:45	16:55	17:00	17:05
10:45	10:55	11:00	11:05	17:15	17:25	17:30	17:35
11:15	11:25	11:30	11:35	17:45	17:55	18:00	18:05
				18:15	18:25	18:30	18:35
12:15	12:25	12:30	12:35	18:45	18:55	19:00	19:05
12:45	12:55	13:00	13:05	19:15	19:25	19:30	19:35
13:15	13:25	13:30	13:35	19:45	19:55	20:00	20:05
13:45	13:55	14:00	14:05	20:15	20:25	20:30	20:35

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Pisu bat behar dut alokairuan, Lasarte-Orian edo inguruko herritan. Harremanetarako telefono zenbakia: 667 808 934.

• Pisu bat eskaintzen dut alokairuan Lasarte-Orian. 4. Pisu da, igogailuarekin eta erreformatuta dago. 2 logela, egongela, komuna eta sukaldea ditu. Prezioa: 750 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 680 708 249, Mario.

• Mobil home bat saltzen da, Oriten. Interesatuak telefono zenbakia honetara deitu: 626 057 485.

Lan-eskariak

• Mutil bat eskaintzen da eraikuntzan, biltegietan edo nekazaritzan lana egiteko. Eskarmentua du. Afzal Muhammad, harremanetarako telefonoa: 667 80 89 34.

• Neska gazte euskalduna eskaintzen da, arratsaldez umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Harremanetarako: 666 040 802.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 11

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Larunbata, 12

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Igandea, 13

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Astelehena, 14

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Asteartea, 15

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Asteazkena, 16

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Osteguna, 17

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chudla, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Jaiotzak

• Dario Gómez Blanco, martxoaren 2an



Heriotzak

• Fidela Mateo Muñoz, martxoaren 6an 92 urte zituela.



• Miren Itziar Olaizola Flaño, martxoaren 2an 89 urte zituela.

Telefonoak

Udala

Erregistroa 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldegia 943 376182
Kulturetxea 943 376181
Zerbitzu Sozialak ... 943 376179
KIUB 943 361605
Udal euskaltegia ... 943 361621
Muntteri AEK
euskaltegia 943 372863

Osasuna / Larrialdiak

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak 943 362442
Ertzaintza 943 288888
SOS Deiak 112

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Somotoko auziak eztabaida handia sortu zuen

Udalbatzarrak PSEE eta PPren bozkei esker, PPK auzkeztutako mozioa aurrera atera zuen

Egun hauetan *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak argitaratu dituen albisteek atzo burutu zen Udalbatzarraren eragin nabarmena izan zuten. Ikusmin handia zegoen, EAJ eta LOHP alderdiek aurkeztu zituzten mozioengatik eta Ana Urchueguia alkate-ohiaren presentzia zela eta. Hori batzar aretoan islatu zen, herritarrez betea baitzegoen.

Hala baina, alkate-ohia ez zen atzoko Udalbatzarrera agertu. Eta mozioei dagokionez, EAJk eta LOHPk proposamen bana aurkeztu zuten.

Batetik, Fiskaltza eta Ogasunari ikerketa desberdinak irekitzeko eskaera eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari Somotoko kooperazioaren 2000 eta 2008 urte bitarteko kontuen auditoria egiteko eskaera egiten zuten.

Eta bestetik Urchueguia anderearen Ondasun Aitorpenaren eta honetan egon zitezkeen aldaketan dokumentuen eskaera egin zuten Diru laguntzen Ikerketa Batzordean aztertzeko.

Baina horietatik bakarra, Ondasun Aitorpenarena atera zen aurrera oposizioko talde guztien bozkekin eta PSEEn abstentzioarekin.

LOHPko zinegotziak dokumentu hori Udalak hirutan ukatu diola jakin arazi zuten eta legez publikoa dela. Ikerketa Batzordeko dokumentu baliagarria dela ere aipatu zuten Ana Prietok eta horrekin bat egin zuen EAJko bozera-mailak, Estixu Alkortak.

Ezker Batuako zinegotziak "interesatua eta alderdia lehe-



Ikusmin handia sortu zen atzoko Udalbatzarraren inguruan eta horrek, batzar aretoa herritarrez betea egotea ekarri zuen.

nengoak izan beharko lirake dokumentu hori argitaratzen, hau guztia argitze aldera" adierazi zion PSEeri.

PPren mozioa

Bestalde, ikerketen eta auditoria eskaeren mozioa ez zen eztabaidatua izan.

PP eta PSEEk ordeko mozioak aurkeztu zituzten. Eztabaida luze eta etenaldi baten ostean, PSEEk PPren mozioarekin bat egin eta beste alderdi guztiak mozio horren aurka agertu baziren ere, PSEEn kalitatezko boz- karekin LOHP eta EAJren bertan behera utzi zuten.

Onartutako bost puntuek honela diote: Ikerketa Batzordearekin amaiera arte iristea eta politikoki Somoto eta Lasarte-Oria arteko koopera-

zioan egon daitezkeen erantzukizunak egozte; kooperazioko ekimenak zehaztasun eta gardentasunez egin daitezen Udalak beharrezko aldaketak egingo dituela; Urchueguia anderearen ondasunen aitorpenaren kopia eskatzen du ikerketa Batzordean aztertzeko; Udalak Herri Kontuen Euskal Epaitegiari Somotoko kooperazioaren kontuen auditoria egiteko eskaera dago ere eta azkenik, auzia irekiko balitz Lasarte-Oriako herritarren interesak defendatu beharko litzuke Udalak.

Ezker abertzaleak Somotoko diru laguntzen auziaren argitzea, "interesak medio, bide okerretik hasi da" adierazi zuen. Ezker Batuak "PPk Batzorde amaiera arte iristea nahi du, baina norbaitek marra

gorri bat jarri dio eta ezin da hortik pasa," adierazi zuen.

Alderdi jeltzaleak estrategia politikotzat hartu zuen mozioa. Era berean, mozioaren alde agertu direnak "ilegalitatearen partaide" izan zitezkeela eta jarrera hau "herriaren interesen aurkako" erabakia zela adierazi zuen.

PSEEk alkatearen hitzetan, "nik hau guztia argitzea nahi dut. Eta alderdiak ere, ez dudarik izan, delituak egitea edo hauek ezkatutzea leporatzen baitiote".

Horregatik, norbaitek Urchueguia andereak delituen bat egin duenaren proba balu, Fiskaltzan denuntzia egin edo Udalean proba aurkeztu dezan eskatu zuen.

Era berean, hurrengo hauteskundeetan alkate aukeratua

izango balitz, Ikerketa batzordearekin jarraitzeko konpromisoa hartu zuen.

Pintadak

Honetaz gain, igandean, martxoaren 6an herriko kaleetan agertu ziren Ana Urchueguia eta PSEEn aurkako pintadak ere hizpide izan ziren.

H1! alderdiko Jexux Izetaki hauek salatu zituen eta alkateak eskerrak eman zien hauek salatu zituzten alderdiei.

Izan ere, LOHPak komunikabideei bidalitako ohar baten bitartez, Urchueguia anderearen eta PSEEn aurka agertutako pintadak salatu ditu.

Plataformaren ustetan, "gurea bezalako gizarte demokratikoan, non aldarrikapen eskubidea dagoen, horrelako ekintzak egilearen izena belzten dutela. Honek anonimatua babesean iraindu eta mintu egiten du beste aldearen defentsa eta erantzun eskubidea eman gabe".

Eta "zerbait esateko edo aurpegiatzeko duenak, aurpegia emanda egin dezake, Lasarte-Oriako herritarren plataformak egiten duen bezala, bere idatziak sinatu eta horren erantzule eginez," amaitzen du.

Honetaz gain, udalbatzara amaitezakoan oposizioko alderdiek, PP izan ezik, emango dituzten hurrengo pausuek aztertzeko bilera bat egingo dutela jakinarazi zuten.

Era berean, udalbatzarraren jorratu ziren beste gaiak eta alderdien eskaerak eta galderak hurrengo zenbakian argitaratuko ditugu. •

OINATZ TALDEA

Lasarte-Oriako mugak ezagutzen

Oinatz taldeak gure herriko bazterrak eta historia ezagutzeko aukera eskaini nahi die herritarrei.

Horretarako, martxoaren 13an, igandean, mugarriz-mugarri doan ibilbidea osatu dute Lasarte-Oriako mugak eta horien kon- dairak edo historia hurbiletik ezagutzeko, Brigitarren komentua, Zumaburun zegoen irla, Plazaolako trena, Azkorteak eremua, etab.

Honela, Oinatz taldeak herritar guztiak konbidatu nahi ditu irteeran parte hartzera. Goizeko 09:00etan, Jalgi taberna parean, emango zaio hasiera Lasarte-Oriaren mugak ezagutzeko aitzakiaz taldeak antolatuta duen mendiri martxari. Goizeko irteera izango da hau eta eguerdi aldera etxera buelta egingo da. •

EZKER ABERTZALEA

Herri programa osatzeko ekimena

Ezker abertzaleak karpa bat jarriko du larunbatean, 12:00etatik 14:00etara San Pedro Eliza ondoko Elizatze plazan.

Hurrengo hauteskundeetarako herri programa osatzen ari da alderdia eta horretarako, herritarren laguntza behar du. Ekintza honetan parte hartu nahi duenak karpan eskuragarri izango den inkesta betetzea besterik ez du izango. •



Adimen urritasuna izatea zer den.- Danok Kide gurasoen elkarteak antolatzen duen VII. Zinema Soziala zikloak adimen urritasunaren gaia jorratuz eman zion hasiera astelehenean. Lasarte-Oriako *Gureak* lantegiko gazteak eta arduradunak egon ziren Manuel Lekuona kultur etxe-ko aretoan haien lana azaltzeko. Honetaz gain, *Yo, también* filma ikusi zuten lehenengo saio honetara hurbildu ziren herritarrek. Amaieran, ikusleek ere hitz egiteko aukera izan zuten. Gizarte kontzientziatzioa bilatzen duen ekimen honek, hurrengo astelehenean du bigarren saioa. Honetan, inmigrazioa landuko da *Agua con Sal* filmaren bitartez eta Esperanza Latina elkarte-ko kideak egingo dira haien esperientziak azaltzeko. •

Emakumearen egunean hainbat ekintza

Emakumeen Zentro Zibikoan biziklapen tailerra, filma eta hitzaldia egin ziren

Martxoaren 8an, asteartean Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatu zen. Gure herrian ekintza ugari antolatu ziren Emakumeen Zentro Zibikoan. Biziklapen tailerra, emakume langileak protagonista diren filma eta hitzaldia izan ziren.

Emakume langilearen nazioarteko eguna izan zen asteartean. Egun seinalatu hori kontuan izan eta ekintza ugari burutu ziren Lasarte-Orian ere.

Eguneko lehenengo ekimena biziklapen tailerra izan zen. Brigitarren komentua ondoan egin behar bazen ere, azkenik, asteartean zebiltzan haize-boladen ondorioz, Emakumeen Zentro Zibikoko egoitzan egitea erabaki zuten.

Honetan, Ur zentroko ordezkararen adierazpenak eta pausak jarraituz, diruzorroak eta giltzatakoko egin zituzten zentro zibikora hurbildu ziren emakumeek.

Horretarako, biziklatu ahal diren elementuak erabili zituzten.

Diruzorroa egiteko kola, plastikozko bi botilen ipurdiak, kremailera eta oihal zatia izan ziren beharrezkoak eta giltzatakokoaren elementuak botila kortxoak, pultseren beira-aleak, hau da, abalorioak, eta alanbrea izan ziren.

Zentroko emakumeek gain, bertan ikusi ahal izan genituen, Jesus Zaballos alkatea eta Gizarte Zerbitzuak sailko batzorde buru den Lourdes Acevedo.

Zinea eta hitzaldia

Arratsaldean aldiz, Gracia Querejeta zuzendariaren *Siete mesas de billar francés*

filma ikusi zuten Zentro Zibikoan.

Jarraian, Nagore Vazquez psikologo eta erizaina Emakumeen bizitza laborari buruz mintzo zen.

Bereziki, emakumeek lanean dituzten arazo eta gizonezkoekin oraindik dituzten desberdintasunei buruz hitz egin zuten.

Nagorek 1923. urteko dokumentu bat erakutsi zuen. Bertan agerienez, andereñoak ezin ziren makilatu, ezin zuten herritik atera Gobernadorearen baimenik gabe edo ezin zuten zenbat kaleetatik bakarrik joan.

Horretaz gain, lan munduan eta etxeko lanetan egon den garapena aztertu zuen hainbat inkestaren bitartez. Etxeko andreen lana kontuan hartzen ez dela eta egun etxean lanak gehiago banatzen direla azaldu zuen.

Haurrei ematen zaien hezkuntza sexistari buruz ere mintzatu zen. Gainera, oraindik lanen eta ikasketen motaren banaketa sexuaren arabera egin dela ere gogoratu zuen.

Azkenik, berdintasuna lortzeko emakumearen kontzientzia garrantzitsua dela eta oraindik egiteko asko dagoela ere aipatu zuen.

Amaieran, emakumeek ere gaiari buruzko haien iritzia eskaini zituzten. •



Bi botila ipurdi, kremailera bat eta oihal zati batekin diruzorroa egiten ikasi zuten biziklapen tailerrera gerturatu ziren emakumeek.



Nagore Vazquezek emakumeek lan arloan eta etxean bizi izan dituzten desberdintasunak eta hauen garapenaz hitz egin zuen.



Lan eta Lan antzerki taldeko lagunek Ana Mirandaren zuzendaritzapean Agatha Christieren *La Ratona* eskainiko dute gaur.

Antzerkia eta afaria ospakizunei amaiera emateko

Gogor entsaiatu dute azken asteetan Helduen Hezkuntzako Lan eta Lan antzerki tailerreko lagunek.

Gaur, Agatha Christie idazle famatuaren *La Ratona* lanaren moldaketa bat eskainiko dute Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan, iluntzeko 19:30ean. Sarrera bi eurotako da.

Emakume langilearen eguneko ospakizunen barruan sartzen den antzerki honetan, herriko taldeak misterioz

betetako istorioa dakar. Elurra dela eta, zortzi pertsona ostatu batean bakanduak geratzen dira. Horietako bat Londresen gertatu den heriotzaren erruduna da. Trotter sargentuak nor den argitu behar du, ezer gertatu baino lehen.

Afaria

Eta polizia-antzerkia emanaldiaren ostean, ospakizunei amaiera paregabea emateko, udalerriko emakumeek afari herrikoa izango dute Araeta jate txean. •

Amaia Gonzalez Caballero Dantzaria

Amaia Gonzalez, txapelaldun European

■ Europako Aretoko dantza txapelketan bi sari lortu ditu Amaia Gonzalez Caballero herriko dantzariak ■ Laugarren aldiz eskuratu du Europa mailako sariren bat lasarteoriatarrek

Otsailaren 28tik martxoaren 5era bitartean, Torremolinosen, Malagan, Europako Aretoko Dantza Txapelketa jokatu da. Bertan, Amaia Gonzalez Caballero herritarak hartu du parte eta bi sari eskuratu ditu; Europako dantza konbinatu eta pasadoble sariak ekarri ditu etxera Amaiak. Aste bete iraun du txapelketak eta egun bakoitzean dantza modalitate batean lehiatu dira: Tangoa, bals-a, pasadoblea, salsa eta dantza konbinatu (tangoa, pasadoblea eta bals-a).

Itxaso MORENO

Europako pasadoble txapelketan lehenengo saria eta Europako dantza konbinatuan hirugarren saria, eskuratu ditu Amaia Gonzalez Caballero lasarteoriatarrek Europako Aretoko Dantza Txapelketan. Jose Mari Orbegozo, azpeitiarra, bere betiko bikotearekin lortu ditu sari hauek. Laugarren aldiz, Europa mailako saria eskuratu du lasarteoriatarrek. Txapelketaren xehetasun gehiago jakiteko berarekin egon gara.

Nolatan erabaki zenuten txapelketan parte hartzea?

Duela urte batzuk Euskadiko txapelketa egiten zen, eta gu bost aldiz izan gara bertako txapelaldunak. Sari bezala Europako txapelketarako plaza eta gastu guztiak ordaintzen zizkizuten.

Orain txapelketa hau ez da burutzen, beraz, parte hartzeko zu zeuk eman behar duzu izena, edozeinek parte hartu dezake. 2007tik ez gindozaz eta errege egunean erabaki genuen aurten bueltatuko ginela.

Beraz, inskripzioa egin, bikoteko 60 euro inguru ordaindu eta abenturan murgildu ginen. Aurten gu geu izan gara gastu guztiak, hotela, hegazkina, dietak ordaindu behar izan ditugunak, baina merezi izan du, sarietara itzuli bait gara.

Zenbat bikote hartzen dute parte gutxi gora behera?

Orotara 1.500 bikote inguru ibili gara Torremolinosen dantzan. Guk parte hartutako kategorietan egunero 800 bikoteekin lehiatzen ginen.

Finalera iristeko hiru aukeraketa pasa behar genituen. Lehenengo goizeko 10:00etan egiten zen eta hain juxtu hor egiten zen kriba edo garbiketa handiena. Hurrengo, arratsaldeko 15:00etan eta fase hau pasatzen zutenek gauean,

22:00etan, burutzen zen finalean parte hartzen zuten.

Gainera fasez pasatzea zorte kontua ere bada, ohol-tza gainean momentu berean bost bikote baitaude dantzan, eta mahaikideek ezin dituzte guztiak ondo kontrolatu.

Zenbat denbora izan duzue txapelketa prestatzeko?

Bi hilabetetan prestatu dugu guztiak, atsedean hartzeko denbora gutxiarekin, gogorra izan da.

Nola prestatu zarete?

Toni Escartin, nazioarte mailako koreografoa izan dugu irakasle. Madrilen kurtsoak ematen ditu eta bertara joan gara koreografia sekuentziak prestatzera. Hala ere, gero guk geuk moldatu dugu dantza gure estilora. Eta gero betikoa, orduak, orduak...

Hemendik eraman zenituzten prestatutako koreografiak?

Koreografiak gutxi gorabehera minutu eta erdi irauten dute. Musika orkestratua da eta guk ez dakigu ze pieza joko duten. Estiloa da badakiguna. Denbora ere, abestiaren arabera segundo batzuk gora edo behera joan daiteke.

Beraz, ezin duzu koreografia prestatuta eraman, pausu batzuk lantzen dituzu baina gero momentuan bertan moldatu eta inprobisatu egin behar duzu. Hemen nabaritzen da bikote baten kalitatea.

Gainera zure aurpegiak naturaltasuna irudikatu behar du, dantzan ezin dira pausu mekanikoak egin, ezta espresiorik gabeko aurpegia eduki.

Aste betez dantzan, neketsua izan behar du, ezta?

Oso neketsua. Egunero hiru txapelketa dira. Ia ez duzu deskantsatzeko denborarik. Nire ahizparekin joan nintzen, eta azken egunetan nire aurpegiak nekea islatzen zuela esaten zidan. Makillajeak ere konpontzerik ez



Europako dantza konbinatuan, hau da bals, tango eta pasadoblean hirugarren saria lortu zuten bi dantzariak.

zuena. Hala ere, indarrak atera eta aurpegia ematen duzu, ez duzu besterik.

Baina nekeak saria izan du.

Bai, Europako pasadoble txapelaldunak eta dantza konbinatuan hirugarren geratu gara.

Aurten ez genuen hainbeste saria espero, baina eskuratu dugu. Gainera pozik nago, Lasarte-Oria ordezkatu dut eta bi sari ekarri ditut.

Irabazte ginelan esan zigitenean, ondoren egindako elkarrizketetan argi utzi nuen sari hau nire ikasleei eskaintzen niela, herrirako saria zela. Beraiek dira jarraitzeko gogoak eta indarrak ematen dizkidanetak, eta horregatik beraiantzako da.

Zer esan zizuten ikasleek?

Oso kontent jarri ziren, sari garrantzitsua delakoa.

Nola sentitu zara oholtza gainean?

Urduritasun handia nabaritu dut nire barnean. Nire aita falta zitzaidan. Lehenengo aldia izan da bera gabe dantzatzen nuela, eta kosta egin zait. Eta bera gabe irabaztea... sarituak ginela esan zigitenean negarri ezin eutsi ibili nintzen.

Eszenatoki bat gogorra da. Nik barnean nituen oroitzapen guzti horiek ez islatzen saiatu behar nintzen, irribarea izan behar duzu beti.

Dantza irakaslea zara, non daukazu eskola?

Jaizkibel plazan, Andatza parean. Bertan estilo ezberdinetako klaseak eskaintzen ditugu; areto dantzak, latinoak, flamenkoa, sebillanak, klasikoa, sabel dantza, fankyas, hip-hop... Gainera adin

guztientzako toki dago. Dantzak ez dauka adinik.

Matrikulazioa irekita dago?

Apirilean irekitzea dugu pentsatuta hastapenetan daudentzako, eta gero udari begira, uztailean ikastaro intentsibo bat egiteko. •



Europako pasadoble txapelketan lehenengo postua eskuratu zuen bikoteak.

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 12

10:30ean, Ostadar - Aforga (Kadeteen Ohorezko Maila, igoera fasea) Michelinen.
 12:00etan, Ostadar - Lazkao (Emakumezkoen KDT F-11, txapel-dunen fasea) Michelinen.
 13:30ean, Ostadar - Intxaurren (Partehartzetako infantilak, kopa) Michelinen.
 13:30ean, Ekintza - Ostadar (I. Kadetea, kopa) Berio, Donostia.
 15:30ean, Ostadar - Allerru (Emakumezkoen Liga, kopa) Michelinen.
 17:15ean, Ostadar - Aloña Mendi (Jubenilen Ohorezko Maila, igoera fasea) Michelinen.

Igandea 13

09:00etan, Martutene - Ostadar (Erregional Goren) Martutene, Donostian.
 10:00etan, Ostadar - Kotskas M.B. (Infantil txikiak, kopa) Michelinen.
 10:00etan, Orioko - Ostadar (Alebina, kopa) Mendibelz, Orion.
 11:00etan, Internacional - Ostadar (I. jubentila kopa) Matigoxotegi, Donostian.
 11:30ean, Ostadar - Soraluze (I. Erregionala, igoera fasea) Michelinen.
 12:15ean, Dunboa Eguzki - Ostadar (Infantilen Ohorezko Maila, txapel-dunen fasea) Artia, Irunen.
 15:00etan, Aforga - Texas Lasartearra (I. Erregionala, kopa) Rezola, Aforgan.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 11

HERRIKO TXAPELKETA
 19:45ean, Izkiña - Naiban
 20:40ean, Lekuona Mena - Viña del Mar

Larunbata 12

18:15ean, Denak Gazte Taberna - ISU leihoak (Gipuzkoako Liga, I. maila) Eskolapioak, Tolosan.

HERRIKO TXAPELKETA

09:10ean, IOB H.K. - Morrison's
 10:00etan, Ainhoa - Ori kristaldegia
 11:00etan, Indaux - Kalaberri Z
 12:00etan, Katakras - Epel
 13:00etan, Buenetxea - Illun
 14:00etan, Ayete - Izarra

Igandea 13

12:00etan, Elorrioko Buskantza - Aldaz H.K. (Nazional B maila) Elorrioko Udak Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

10:00etan, Iargi - Obelix
 11:00etan, Sem. Andaluz - ISU Lei.

PILOTA

Ostirala 11

19:00etan, Azkoitia - Intza (Gipuzkoako Errendimendu txapelketa, eskuz binaka infantilak) Gurea, Azkoitian.

Larunbata 12

16:30ean, Euskal Giroa - Intza (Udaberriko txapelketa, finalerdia, eskuz binaka III. kadetea) Herrera, Donostian.

PALA

Larunbata 12

15:00etan, P. Sarasola eta J. L. Urruzola - B. Odriozola eta S. Martin
 15:45ean, O. Lazkao eta I. Arluziaga - I. Lizaso eta J. Alzibar

Igandea 13

09:30etan, I. Bardaji eta A. Zubizarreta - J. Iparragirre eta K. Rozas

ATLETISMOA

Igandea 13

11:00etan, herriko hainbat emakume 22. Lilaioean parte hartuko dute, Donostian.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 12

10:30ean, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako juniorrek Euskal Herriko Torneoan parte hartuko dute, Gazteizen.
 16:30ean, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteek Azpeitiako XXXI. Saria parte hartuko dute.

Igandea 13

09:00etan, Ostadarreko zikloturismo taldeak irteera du Lizartzara.
 16:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteek Azpeitiako XXXI. Saria parte hartuko dute.

BOLA-JOKOA

Igandea 13

Egun osoa, Ostadarreko bola-joko taldeak lehendakari txapelketako jardunaldia dute Hernanin.

ESKOLA KIROLA

Larunbata 12

10:30etatik 12:00etara, benjamin mailako gazte txapelketako atletismo topaketa dute, Michelingo atletismo pistan.

EHIZA

Larunbata 12

Goiza osoa, Buruntz Azpi elkarteak, martxoaren 12an, larunbatean, elkarreko ehiza txapelketa antolatuko du Buruntza mendiko larretan.

Intzako pilotari gazteak finalaren bila

Xabi Rekondo eta Jon Presak osatutako kadete mailako bikotea Udaberri txapelketako finalerdietan dago

Eskuz binakako Udaberri txapelketa amaierara iristen ari da.

Aste hauetan finalerdia ari dira jokatzen eta III. mailako kadeteetan Xabi Rekondo eta Jon Presak osatutako Intzako bikotea dabil lehian.

Finalerdia joan eta etorriko partidatan erabakiko dira eta bietako hoberenak martxoaren 20an jokatuko den finalean izango du norgehiagoka handia.

Intzako gaztetxoekin batera, Eibar, Zumaia eta Euskal Giroako bikoteak dira bi partida horietan finalerako txartela borrokatzen dutenak.

Porrota etxean

Gauzak honela, lehengo astean, joaneko partidak jokatu ziren.

Michelingo kirol guneko pilotalekura hurbildu ziren herritarrek Intza eta Euskal Giroako bikoteen arteko partida ikusi zuten.

Intzakoek etxean jokatu arren, partida 14-22 galdu zuten.

Jose Felix Solano entrenatzaileak azaldu digunez, partida berdintsua izan zen, markagailuan 10-11 egon zenera arte.



Intzako bikoteak joaneko emaitzari buelta ematen saiatuko da. Arg.:Txema Valles

Orduan, Euskal Giroakoek errenta hartu zuten eta Intzakoek ezin izan zioten partidari buelta eman.

Entrenatzaileak jakin arazi digunez, "Euskal Giroako mutilak urte bete zaharragoak dira eta horrek hobeto ibiltzea dakar. Eta hori partidatan antze-man zen".

Gogor hasi

Aste honetan, erronka zaila dute beraz, Intzako gazteek Herreran jokatu den etorriko partidari.

Finalean egon nahi badute partida irabazi eta tantokopurua herriko taldearen aldekoa izan behar du.

Jose Felixek aipatu digunez, zaila baldin bada ere, egoerari buelta ematen saiatuko dira Intzako kideak. Horretarako, "gogor hasi beharko dugu eta errenta handia lortu".

Eta, gainera, bikote honek txapelketan lan handia egin duela eta finalera iristeko gogoekin dagoela adierazi digu. •

Beltzak Ostadar errugbi taldeko kideak Avironen partida ikusten egon ziren

Lehengo larunbatean martxoak 5ean, Aviron Bayonnais eta Toulouse taldeen arteko errugbi partida jokatu zen Anoetako zelaian.

Avirongo taldeak Lasarteko Beltzak Ostadar Jalai errugbi eskolari 20 sarrerak oparitu zizkion Gipuzkoako beste eskolei bezala.

Gauzak honela, partida ikusteko aukera izan zuten neska eta mutil gazteek. Beltzak taldeko hainbat beterrano ere egon ziren hauek laguntzen.

Partida gogorra izan zen. Defentsa lan handikoa eta azkenean, Aviron gailendu zen.

Honetaz gain, Beltzak Ostadar Jalai eskolako benjamin mailako lau kidek partida hasieran taldeei egiten zaien ohorezko pasilloan egoteko zortea izan zuten. •



Beltzak Ostadar Jalai eskolako benjaminak ohorezko pasilloan. Arg.: Beltzak Ostadar

Kiroletako oharrak


XXIII. Squash txapelketa soziala

Lasarte-Oriako Kirolekin Udak Zerbitzuak hogeita hirugarren Squash txapelketa soziala antolatu du. Txapelketan parte hartzeko asmoa dutenek gaur azken eguna dute Kiroldegiko kafetegian izena emateko. Inskripzioaren prezioa Buruntzaldeko bazkideentzat 10 eurokoa da.

Egunero

Erakusketa

ATZEGI, 50. URTEURRENA erakusketa ikusgai. Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.



Ostirala, 11

Emakumeen eguna

EPAko antzerki taldeak Agatha Christie-re "LA RATONERA" lana eskainiko du. Sarrera, 2 euro. Kulturetxean, 19:30ean.

Emakumeen eguna

AFARI HERRIKOIA antolatuta dute eguna ospatzeko eta herriko emakume guztiei dago eskainia. Afariaren prezioa, 24 eurokoa da eta izena Zentro Zibikoan eman behar da. Araeta jatetxean, 21:30ean.

Igandea, 13

Zinea

EL PEQUEÑO REY MACIUS haurrentzako filma ikusgai. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan. Sarrera, 3,30 EURO. GAZTELANIAZ.



Inmigratioaren gaia landuko da Zinema Sozialaren barruan

AGUA CON SAL filma eskainiko da Danok Kidek antolatutako VII. Zinema Sozialaren zikloaren barruan. Ondoren Inmigratioari buruz arituko da Esperanza Latina elkarteak.

ASTELEHENEAN, HILAREN 14AN
KULTURETXEAN 17:30EAN
DOAN

Asteazkena, 16

Hitzaldia

Haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien zikloan, "GURASOOK ERE BEHAR DUGU LAGUNTZA" Pilar Seminarioren eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.

Osteguna, 17

Zinea

EXIT THROUGH THE GIFT SHOP filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera: 4,20 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean. GAZTELANIAZ

Ostirala, 18

Antzerkia

KING KONG-EN NESKA antzezlan Josune Monzon aktorearen eskutik. Jalgi kafe-antzerkian, 22:30ean. EUSKARAZ

Igandea, 20

Zinea

ZIGORTZAILEAK haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3, 30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ.



Astelehena, 21

Zine soziala

RETORNO A HANSALA filma eskainiko da Danok Kidek antolatutako VII. Zinema Sozialaren barruan. Ondoren Koperazioa eta solidaritateari buruz arituko da Medicus Mundi elkarteak. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:30ean.

Asteazkena, 23

Ikastaroa

TXAKURRAK ONDO HEZITZEKO IKASTAROKO hirugarren saioa. Bertan baliozko legediari buruz arituko dira. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta 16:00 - 21:00
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiako programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

Dagokionari

Gora Lasarte-Oriako inauteriak!!!

Lehenago larunbatean goizean goiz jaiki eta eguzkiak irribarre egiten zigula ikusita, moztarroak, pelukak, zapiak, etab. jantzi eta eguraldi politaz eta inauteriaz gozatzera atera ginen.

Lerro hauekin, egun polit horretan disfrutatzera atera ziren guztiei eskerrak eman nahi nizkieke, benetan jai polita sortu zelako, goizeko txupinetik hasi eta gaueko ordu txikietaraino. Tabernariak txapo! eta pintxo poteoa txapago!!!. Baina jai guztiek dute hobetzeko zerbait eta hona hemen nire iradokizun apala:

Jende guztia saltsan sartzeko, kalean musika megafonia, faltan botanuen, Sagardotegi plazan zegoena gutxitxo iruditu zitzaidan.

Egun luzea eta alai pasata igandea iritsi eta jaiaz gozatzaren jarraitu nahi zutenei ez zitzaian lan erraza tokatu, kale guztiak zikinkeriaz eta kristalez beteta zeuden eta Sagardotegi plazatik, adibidez, hobe zen ez pasatzea, gaueko parrandako aztarna guztiak bertan baitzeuden.

Inauteriak guztion festak dira, beraz, horrelako ekintzak antolatuta dauden egunetan udaletxeak kaleetako garbiketa planifikatuta izan beharko luke, ez zaizue iruditzen?

Globo hegalariko bidaiari bat

Oharrak

Eskolako estutxe bat galdu da

Eskolako estutxe bat galdu da, granatea, Kutxatik Euskotreneko geltokiaren bidean. Estutxearen barruan ahots grabagailu bat, 2 pendrive eta giltza bat zeuden besteak beste. Itzultzea sarituko da. Harremanetarako telefonoa: 667 680 498 / 667 315 879 (Izaro, M^a Angeles).

Inauterietako argazkiak

Txintxarri aldizkaritik jakin arazi nahi dugu, inauterietan ateratako argazkiak, www.txintxarri.info web atarian dituzuela ikusgai eta eskuragarri.

Ikastetxeetako ospakizunak, San Ferminetakoak, desfile bateratuarenak, kaleko giroa eta herritarrek moztortuta, tabernak dekoratuta, Euskal Inauterietakoak... topatuko dituzue bertan.

Sorgin Dantza

Ttakun Kultur Elkarteak 25. urteurreneko Sorgin Dantza saioan parte hartu zutenei jakin arazi nahi die, Udalak ospakizunetan parte hartu dutenei eman dizkien oroigarriak, (boligrafoa eta giltzatak), Ttakunen egoitzan daudela, Geltoki kalea 4an, 09:00etatik 13:30era eta arratsalde 15:30etik 19:30era.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, zilarrezko kolgantea, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, lau erloju, urrezko pulsera, eraztun bat, hiru diru zorro, gerriko poltsa, manikura kutxatilla, neskaren eskumuturreko bat, bi zilarrezko pulsera, haur zamarra bat eta larruzko zamarra bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesik dutenei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Erretiratuen bidaiari

Benidormera

Biyak Bat elkarteak bazkide guztientzako antolatuta dute 15 eguneko bidaiari Benidormera. Irteera maiatzaren 15ean izango da eta itzulera 29an. Benidormeko Cristal Park izeneko hotelean hartuko dute ostatu. Norbaitek interesik badu edo informazio gehiago nahiko balu, Biyak Bat elkarteak Kale Nagusian duen egoitzatik pasa behar du.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkariari. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Aste Santuko txokoetarako dena prest

Txoko Olinpiadak egingo dituzten aurtengoan apirilean, Aste Santuko oporraldietan

Urtero bezala Amaraun Ludotekak programa zabala dakarkigu Aste Santuan umeak aspertu ez daitezten. Aurtengo ekintza guztiak Txoko Olinpiaden inguruan kokatuko dira. Apirilaren 18 eta 20a bitartean, eta 26 eta 30a artean dibertsioa nagusi izango da etxeko txikienezat.

Taldeko kamisetak egin, taldeko abestia grabatu, uretako kirolak, herri kirol bitxiak, kirolarien menu olinpikoaren dastaketa, gurpil gaineko kirolak, final handia eta domina banaketa izango dira aurtengo Aste Santutako txokoetan prestatutako egitarauan.

Aste Santua baino lehen

Apirilaren 18an emango zaie hasiera Aste Santuko txokoei, eta aurtengo gaia: Txoko Olinpiadak. 2 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzendutako ekintzak izango dira.

Apirilaren 18an emango zaio hasiera taldeko kamiseten diseinuarekin. Eskulan honetan adin tartearen arabera teknika ezberdinak jorratu dira.

Apirilaren 19an taldeko abestia sortu, koreografia prestatu eta grabatu egingo dute txokoetan parte hartzen duten umeek.

Apirilaren 20an, eta Aste Santuko jai egunei hasiera eman baino lehen, uretako kirolak egingo dituzte etxeko txikienek, adinka ekintza ezberdinak probatzeko aukera

izango dute.

2 eta 4 urte bitarteko haurrek aquagym txiki probatuko dute. Ekintza honetarako aldatzeko arropa eraman beharko dute.

5 eta 8 urte bitartekoek waterpolo berezia probatzeko aukera izango dute. Horretarako bainujantzia eta txanoa eraman beharko dituzte.

Pazko astean dibertsioa

Aste Santuaren ostean, Pazko astea dator eta hau ere ekin-tzaz beterik iritsiko da.

Lehenik, apirilaren 26an herri kirol bitxiak probatuko dituzte haurrek, betiko herri kirolak baina moldaketa txiki batzuekin.

Kirolari olinpikoak ere dieta berezia egiten dute eta horregatik apirilaren 27an kirolarien menu olinpikoa dastatzeko aukera izango dute. Barrira energetiko desberdinek energiiaz beteko dituzte haurrak.

Gurpil gainean

Apirilaren 28an gurpil gaineko kirolak egingo dituzte. Ekintza honetan adinaren arabera kirol bat edo beste programatu da.

2 eta 4 urte bitarteko haurrek trizikloa edo patinetea eraman beharko dute ekintza honetan parte hartzeko. Eta 5 eta 8 urtekoek txirringa edo patinak, ez ahaztu!

Eta azkenik apirilaren 29an eta 30ean probatu dituzten kirol guzti hauen final handiei emango zaie



Ederki pasako dute haurrek jolasean Aste Santuko Txokotan.

paso. Final hauek Txiki Guaien jokatuko dira.

5 eta 8 urte bitarteko haurrek bi egunetan zehar izango dituzte Final handiak, gaupasa eta guzti egingo dutelarik. Horregatik, adin tarte hauetakoak apirilaren 30ean, eguerdiko 13:00etan bueltatuko dira txoko olinpiadietara amaiera emango dien ekintzatik.

Ez galdu aukera

Aste Santuko txokoak 2002tik 2008ra bitartean jaiotakoiei

zuzenduta daude. Goizeko 9:00etan ateak ireki eta 13:30ak arte martxan egongo dira.

Apirilaren 14a bitartean apuntatzeko aukera egongo da, baina ez galdu denbora, kopuru mugatua dago eta, lehenengo 40 haurrentzat egongo da lekua bakarrik.

Izena emateko Ttakun K.E-tik (Geltoki kalea 4, behe) pasa, 943 371448 telefono zenbakira deitu edo www.ttakun.com helbidean sartu.

Bestela, Amaraun Ludotekan ere badago izena emateko aukera.

Matrikulazioa

Txoko Olinpiadetan parte hartu nahi duenak, eta Lasarte-Orian erroldatuta baldin badago, 88 euro ordaindu beharko ditu, bestela 132 euroko prezioa izango dituzte Txokoei. Honetaz gain, Amaraun ludotekako kide diren haurrek, %10eko beherapena izango dute matrikulan. •

Eguneroko menua
Astebukaerako menua
Karta
Bokatak
.....



txixarro
erretegia



Sagardotegiko menua

Sahietsarekin 22€
Txuletarekin 30€

Berria!

Txikierdi Auzoa, Iguarte Kalea 11 (Urbilen parean)
20170 Usurbil • Tel.: 943 369964